


PLAZENTZIA BASERRIA
C MAILA**UBA BIDEA 41**

Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

Oinplano angeluzuzen luze eta estua, bi zatitan banatua: aurrekoa, beheko solairuko, lehen solairuko eta estalkipeko solairuko profila duena; eta atzekoa, beheko solairua eta lehen solairua soilik dituena. Gainera, gorputz erantsi txiki bat dauka. Eraikuntzaren bi gorputzek bi isurkiren bidez ebazten dute estalkia, hormapiko bana osatuta. Hegoaldekoa du fatxada nagusia.

Adierazitako hegoaldeko fatxadaren kasuan (bertan egongo litzateke, ziurrenik, sarrera nagusia), goranzko ostiko bat du, alboetako batean hareharri landuz eta beheko solairuan, aurrez aurreko izkinan, harrizko pilare batez errematatua. Harlangaitz hormazko fabrikaz eraikia da. Harlangaitz horma entokatuz eta zurezko bilbaduraz estalita dago estalkipeko bigarren solairuan.

Ekialdeko alboko fatxada berriki birgaituta dago eta harlangaitz hormazko fabrikaz ebatzi da beheko solairuan, eta landu gabeko ageriko adreiluzko horma atalez, zurezko bilbaduraren artean, goiko solairuan. Iparraldeko eta Mendebaldeko fatxaden gainerakoa harlangaitz hormazkoa da. Fatxada horietan antzematen da harlanduzko azpadurako baoak zeudela lehen.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra
Plan Berezi honen C babes mailan integratzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena
 - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: leihoen arotzeria, balkoiak eta fatxada nagusiaren beheko solairuko eta lehen solairuko tartea.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak eta zurezko egitura bilbaduran eta estalkian.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: handitze edo jasodura gehiagorik ez da onartzen.
 - D. Nahitaezko lehengoratzak: ez.